

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizen lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren berriazko oinarriak eta deialdia, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2022ko ekitaldiko laguntza-deialdiaren barruan

2021eko urriaren 1ean onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren 2022ko dirulaguntza-deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2021eko urriaren 29ko ALHAOn —124.zenbakia— argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke —www.vitoria-gasteiz.org—, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2022ko azaroaren 18ko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizen lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2022ko ekitaldiko laguntza-deialdiaren barruan. Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, denak jakinaren gainean egon daitezten:

1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak

X. Enplegu Planeko lan-kontrataziorako laguntzak, 2022.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

- Abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuak lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriak jasotzen ditu, eta kontratazio mugagabea orokortzen du.

- Oinarri hauen xedea da udalerriko langabeen lan-kontratazioa bultzatzea. Helburu horrekin, konkurrentzia sinplearen erregimenean laguntza ekonomikoak emateko baliatuko diren baldintzak ezartzen dira, ohiko merkatuan lanaldi osoko nahiz partzialeko kontratazioa sustatu eta errazteko, Vitoria-Gasteizko udalerrian.

- Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emanda eta altan dauden Gasteizko langabeak kontratatzen zuzenduta daude laguntzak, bereziki lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak kontratatzea faboratzen delarik.

- Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

3. oinarria. Enpresa edo entitate onuradunen betekizunak, eta kontratatzen diren pertsonenak

- Betekizun hauek betetzen dituzten enpresa edo entitateek jaso ahal izango dituzte programa honetako dirulaguntzak, edozein delarik ere beren forma juridikoa:

1. Diruz laguntzeko moduko jarduerak garatzea, zuzenean, Gasteizko udalerriko lantoki batean.
2. Zerga eta lan betebeharrak egunean izatea, bai eta Vitoria-Gasteizko Udalari dagozkionak ere.

3. Ez egotea administrazio-bidean edo bide penalean zigortuta eta dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukeratik apartatuta, ezta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekuren menpe ere, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak edo Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak —otsailaren 16ko 3/2012 Legeak aldatua— ezarritakoaren arabera sexu-arraioengatiko diskriminaziotzat jotzen diren egintzen ondorio direnak barne.

4. Beste dirulaguntzarik jaso ez izana pertsona bera kontratatzeako, Vitoria-Gasteizko enpresei lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren aurreko deialdietan.

5. Baldintza horiek betetzen jarraitzea, ebazpena eman arte.

6. Ondasun-erkidegoen edo elkarte zibilen kasuan, horietan partaidetza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiak bete beharko dituzte oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Nolanahi ere, taldea ordezkatzeko duen pertsona bat izendatu beharko da, zeinak nahikoa ahalmen izango baitu taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea baino lehen desegiten bada elkartea, emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da.

• Kontratatuko direnek baldintza hauek bete beharko dituzte, indarrean dagoen legediak agintzen dituen gain:

1. Kontratazioaren aurreko egunean Gasteizen erroldatuta egotea.

2. Langabezian egotea, hau da, Gizarte Segurantzaren inongo erregimenetan izena emanda ez egotea, eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailer gisa izena emanda eta altan egotea, kontratazio-egunaren aurre-aurreko egunean.

4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

Oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak betetzen direlarik egiten diren lan-kontratazioak.

• Kontratuak mugagabeak izango dira, lanaldi osorako edo lanaldi partzialerako; lanaldiak gutxienez ehuneko 50ekoa izan beharko du, diruz laguntzen den epe osoan.

• 2022ko maiatzaren 21etik 2023ko maiatzaren 31ra bitartean (egun hori barne) egiten diren kontratazioek jaso ahal izango dute dirulaguntza.

• Kontratazioek enplegu-sorkuntza garbia ekarri beharko dute kontratua diruz laguntzen zaien pertsonak bertaratu aurreko 6 hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantilla osoaren gainean.

• Enpresak gutxienez 12 hilabetez eutsi beharko dio dirulaguntzaren xede den kontratu mugagabeari.

• Ez da dirulaguntza bat baino gehiago emango pertsona bera kontratatzeagatik, nahiz eta eskaera enpresa edo pertsona autonomo desberdinek egin —halakorik egokituz gero, eskabidea aurkeztu den hurrenkera aintzat hartuko da dirulaguntza bakar hori emateko—.

5. oinarria. Dirulaguntzaren xede izango ez direnak

• Enpresaren titulartasunaren ondorengotzatik edo forma juridikoaren aldaketatik sortzen diren hasierako kontratazioak.

• Enpresaburuen ezkontideen, ondorengoan edo bigarren mailara arteko —hori barne— odol- edo ezkontza-ahaidetasuna duten senideen kontratazioa, edo enpresen kontrola duten, zuzendaritza-karguetan diharduten nahiz administrazio-organoetako kide direnenak.

• Enpresa berak langile bera kontratatzea, baldin eta aurreko deialdietan dirulaguntza jaso bada.

• Eskabidearen zio den kontratua formalizatu aurreko hamabi hilabeteetan enpresa berarekin lan-harreman mugagabe bat bukatu duten pertsonen kontratazioa.

- Laguntza eskatzen duten sozietateetan partaidetzak dituzten edo kontratazioaren aurreko urtean izan dituzten pertsonen dagozkien kontratazioak.

- Aldizkako finkei modalitatean egindako kontratuak.

- Txanda-kontratuaren modalitatean egindako kontratuak.

Era berean, ezingo dira laguntza hauetaz baliatu:

- Dirulaguntzen Lege Orokorren 13.artikuluko debeku egoeraren batean dauden enpresa edo entitateak.

- Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta haiekin loturarik duten edo haien mendeko diren entitateak.

- Aldi baterako lanerako enpresak, beste enpresa bati aldi baterako langileak uzteari dagozkionez.

- Vitoria-Gasteizko Udalak nahiz bere enpresa edo erakunde autonomoek esleitutako kontratuak gauzatzeko egindako lan-kontratazioak.

- Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak —urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia— 2.1 artikuluan aipatzen dituen lan-harreman bereziak.

- Deialdi honetan aurreikusten diren enpresentzako laguntzek Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduan ezarritako “minimis” araua bete beharko dute —2013ko abenduaren 24ko Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L352—, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua “minimis” laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

6. oinarria. Baliabide ekonomikoak

Deialdiaren diru-hornidura milioi bat bostehun eta hogeita zortzi mila eurokoa (1.528.000,00 euro) izango da, eta partida hauen kontura egingo da:

- 2022ko udal aurrekontuko 0823.2411.480.15 partida, “Eskualde Plana, Lanbideren ekarpena” izenekoa (1.520.634,50 euro).

- 2022ko udal aurrekontuko 0823.2411.480.20 partida, “Eskualde Plana, Udalaren ekarpena kontrataziorako” izenekoa (7.365,50 euro). Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio zuzkidura hori handitzerik izango da, krediturik badago, interes publiko, ekonomiko eta sozialako arrazoiak tarteko.

7. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkezteko epeak

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —alde aurretik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau indarrean jartzen denean hasiko da, eta 2023ko maiatzaren 31n amaituko, baldin eta deialdiaren diru-zuzkidura aurretik agortu ez bada; kasu horretan, amaitutzat emango da deialdia, baita eskabideak aurkezteko epea ere.

Enpresa edo pertsona interesdunek eskabidea aurkezteak oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

I. eta II. eranskineko eskabide-eredua baliatuz aurkeztu beharko dute eskabidea interesatuta dauden enpresek, baita 13.oinarrian adierazitako nahitaezko dokumentazioa ere, herritarrei laguntzeko bulegoetan eta San Martineko udal eraikinean —Teodoro Dublang Margolariaren kalea z/g—, edo Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan. Orobat aurkeztu ahal izango dute legez aurreikusitako gainerako moduetan Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ildotik.

Eskabidea postaz bidaltzen bada, mezu elektronikoa bat igorri beharko da, bidalketaren frogagiriarekin, helbide honetara: ayudascontratacion@vitoria-gasteiz.org.

Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

8. oinarria. Ebazteko epea

Prozeduraren ebazpena eman eta argitaratzeko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, dirulaguntza-eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunaren biharamunetik. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eskabideak ezetsizat jo ahal izango dituzte interesdunek, administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik berriazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada.

9. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzea

9.1. Gehienez 8.000,00 euroko laguntza, lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko.

Laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen ehuneko 75, enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

9.2. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000,00 eurokoa izango da lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko, baldin eta kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen badira:

- Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak (titularrak edo onuradunak).
- 35 urtetik beherakoak.
- Luzaroan lanik gabe daudenak. Halakotzat joko dira kontratazio-dataren aurreko 540 eguneko aldiaren gutxienez 360 eguneko Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publikoren batean enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egon diren langabeak.
- 55 urtetik gorakoak.

Kasu horretan, laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzakoen ehuneko 100a, enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

Lanaldi partzialeko kontratazioetan —gutxienez ehuneko 50, 4.oinarriaren arabera—, lanaldiaren arabera izango da dirulaguntza.

Dirulaguntzen zenbateko guztiak ehuneko 10 handituko dira kontratuak emakumeei egiten zaizkienean. Gehikuntza hori aplikatzean ateratzen den azken zenbatekoak ezin izango du kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen ehuneko 100a gainditu, enpresa kontratatzailearen kargura kontzeptu guztiengatik Gizarte Segurantzari egindako kotizazioa barne.

Urteko soldata-kostutzat zenbatuko dira ordainsari gordinari dagokion gastua (lanaldiaren arabera) eta enpresaren kargura Gizarte Segurantzari dagozkion kostuak. Enpresak/entitateak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du gainerako nahitaezko dokumentazioarekin batera, eta gero justifikatu egin beharko du (kontratuaren dataren ondorengo 12 hilabeteetako). Baldin eta, gerora, eskabidean adierazitakoa baino zenbateko txikiagoa justifikatzen badu enpresa edo entitateak, eta horrek laguntzaren kalkulua aldatzen duelarik ateratzen den kopurua benetan diruz lagundutakoa baino txikiagoa bada, jasotako dirulaguntzaren zati proportzionala itzuli beharko du.

Urteko soldata-kostuen kalkulua, deialdia honi dagozkionetarako, dirulaguntzaren xede den kontratua duen langilearen soldata gordina izango da, enpresa edo entitatearen kontura diren Gizarte Segurantzako kostuak gehituta —kontratuaren dataren ondorengo 12 hilabeteetako—.

Dirulaguntzak emateko ebazpena baldintzatuta egongo da, kreditu egokia eta nahikoa dagoen ere.

10. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea

Ordainketa bakarrean ordainduko dira laguntzak, kontratazioa behar bezala egin dela eta laguntza emateko eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdi honen 13. oinarrian ezartzen denaren ildotik.

Diruz lagundutako aldia (12 hilabete) bukatu ondoren, eta hala eskatzen zaiolarik, dirulaguntzaren xedea bete dela justifikatu beharko du enpresa edo entitateak, ematean finkatutako moduan bete ere.

11. oinarria. Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak

Dirulaguntzen Lege Orokorren 14. artikuluan xedatutakoa gorabehera, betebeharrak hauek izango dituzte onuradunek:

1. Laguntza emateko arrazoiak izan den jarduera betetzea eta bete dela egiaztatzea, hau da, lan-kontratu mugagabe bat formalizatzea, eta emateko betekizunak eta baldintzak betetzea.

2. Vitoria-Gasteizko Udalaren egiaztatze-ekintzen eta bertako kontu-hartzaile nagusiaren finantza-kontrolerako ekintzen mende jartzea, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

3. Zerga-betebeharrak bete eta Gizarte Segurantzari zein Vitoria-Gasteizko Udalari ordaindu beharrekoak ordaindu direla egiaztatzea.

4. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari beharrezkotzat jotzen duen informazio eta agiri osagarri oro ematea, deialdi honetan jasotzen dituzten dirulaguntzak ulertu eta ebaluatzeko.

5. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraztea.

6. Udal dirulaguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero, organo emaileari jakinaraztea.

7. Sortutako kontratu mugagabea gutxienez 12 hilabetez mantentzea, eta aldi osoan zerga-eta lan-betebeharrak betetzea, baita Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak ere. Betebeharrak horiek betetzen ez badira, itzuli egin beharko da emandako dirulaguntza, dagozkion interesekin.

Baldin eta aldi horretan, dirulaguntza norengatik ematen den, pertsona horrek dena delakoa-gatik baja hartzen badu enpresan/entitatean, hasieran kontratatutako pertsonaren ezaugarri berak dituen beste pertsona batekin ordezkatu beharko da, deialdian adierazitako betekizun berak betez eta baldintza berberetan edo hobeetan; horretarako hilabeteko epea izango da, baja ematen den egunetik. Vitoria-Gasteizko Udalari horren berri eman beharko zaio, gehienez ere 15 eguneko epean kontratu berria egiten den egunetik. Ordezkapen bakarra egin ahalko da. Dirulaguntza ematea ebatzi aurretik gertatzen bada baja, aurkeztutako eskabidea bertan behera geratuko da.

Adierazi bezala ordezkatzeko ez bada, itzuli egin beharko da emandako dirulaguntza, dagozkion interesekin.

Kontratuarengatik dirulaguntza lortu duen pertsonaren batek baja hartzen badu enpresan/entitatean, heriotza, ezintasun iraunkorra, erretiroa, dimisioa, borondatezko baja edo diziplinazko kaleratzea direla kausa, eta dirulaguntza emateko zio izan diren betekizun berak betetzen dituen beste pertsona bat kontratatzen ez bada hilabeteko epean, dirulaguntza proportzionala itzuli beharko da. Alegia, Gizarte Segurantzaren baja ematen zaion egunetik hasi eta dirulaguntza emateko zio izan zen kontratua mantendu behar zeneko aldia bukatu arteko tarteari dagozkion dirulaguntza proportzionala itzuli beharko da.

8. Jasotako funts publikoak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37. artikuluan adierazten diren kasuetan.

12. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateraezintasuna

Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak bateraezinak izango dira kontzeptu berarengatik eta helburu berarekin beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek ematen dituzten dirulaguntza edo laguntzekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu.

13. oinarria. Nahitaezko agiriak

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira, nahitaez:

- Eskabide-orria, eta zinpeko aitortpena, oinarri hauen I. eta II. eranskinetan ageri den ereduaren arabera —atal guztiak bete beharko dira, nahitaez—.

- Entitate eskatzailea egiaztatu eta identifikatzeko agiriak:

1. IFZ edo AIZ, autonomoen kasuan, edo enpresaren IFK.

2. Enpresa eratzeko eskritura, enpresaren estatutuak eta legezko ordezkariaren ahalmenaren egiaztatpena.

3. Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.

4. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, kontratazioaren aurreko 6 hilabeteetako batez besteko plantillari buruzkoa, kontratatutako pertsona atxikiko den kotizazio-kontuaren kode berari dagokiona.

5. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, kontratazioaren eguneko batez besteko plantillari buruzkoa, kontratatutako pertsona atxikiko den kotizazio-kontuaren kode berari dagokiona.

6. Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiri eguneratuak, horiek ofizios eskatzeko baimena ukatuz gero (Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituen ofizios egiaztatuko da).

Kontratatutako pertsona egiaztatzeko agiriak:

Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiria (Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituen ofizios egiaztatuko da).

- Kontratatutako pertsona egiaztatzeko agiriak:

1. Kontratuaren NANA edo AIZ.

2. Errolda-ziurtagiri historikoa.

3. Kontratuaren lan-bizitzaren txostena, gutxienez ere kontratazioaren aurreko urte eta erdia eta kontratazioaren ondorengo eguna barne direla.

4. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egondako aldien ziurtagiria, kontratua hasi aurreko 18 hilabeteetako.

5. Kontratua talde berezietakoren batekoa izanez gero, hori egiaztatzeko behar diren agiriak.

- Kontratua eta soldata-kostuak egiaztatzeko dokumentazioa:

1. Aldeek sinatutako lan-kontratuaren kopia, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari kontratazio hori bide telematikoz jakinarazi izanaren egiaztagiriarekin batera.

2. Kontratazioaren urteko soldata-kostuaren ziurtagiria, enpresa edo entitateak emana. Soldata-kostuen kalkulua, deialdia honi dagozkionetarako, dirulaguntzaren xede den kontratua duen langilearen soldata gordina izango da, enpresa edo entitatearen kontura diren Gizarte Segurantzako kostuak gehituta —kontratatzeko egunaren ondorengo 12 hilabeteetako—. Ziurtagiriak enpresaren, langilearen eta dirulaguntza eskatzen den kontratazio-aldiaren datu osoak jasoko ditu, soldata gordinaren kostuak eta enpresaren kargurako kostuak banakatuta, eta enpresaren/entitatearen legezko ordezkariak behar bezala sinatuta aurkeztu beharko da.

• Justifikazio-dokumentazioa, kontratu mugagabea egin eta 12 hilabetera aurkeztu beharrekoa, dirulaguntzaren aldia amaitu ondoren.

1. Afiliatuaren lan-bizitzaren txostena.

2. Kontratua egin ondorengo 12 hilabeteetako nominak eta hura ordaindu izanaren egiaztagiriak.

Honela justifikatu beharko da nominen ordainketa:

a. Banku-transferentziaren bidez egin bada, banku-entitateak zigilatutako dokumentua edo banku-ordainagiria baliatuz.

b. Beste bitartekoren bat baliatuz ordaindu bada (bakarrik 1.000,00 eurotik beherako ordainketetarako balio du), langilearen erantzukizunpeko adierazpena, zeinean hileroko kopuruak jaso dituela adierazi beharko baitu, enpresa edo entitateak zigilatuta eta langileak sinatuta, kobratu izanaren erakusle.

3. Ofizios eskatzeko baimena ukatuz gero, Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiriak —udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dauden ofizios egiaztatuko da).

Vitoria-Gasteizko Udalak kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibidea —Gobernu Batzarrak 2015eko urriaren 16an onetsi zuena— aplikatuz, justifikazio-agiariak paper ehuneko 100 birziklatuan aurkeztea gomendatzen da (kontsumitu ondoko edukia gutxienez ehuneko 65ekoa), bi aldeetatik eta zuri-beltzean inprimatuta (kolorea ezinbestekoa denean bakarrik erabiliko da); koadernatzea ahalik eta urriena izango da, plastikozko azalik gabea, errazago birziklatzeko.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri (www.vitoria-gasteiz.org), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ordutegi ofizialaren barruan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.artikuluan aurreikusitakoa aplikagarri izango da.

Bide hauek baliatu ahal izango dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztea. Proiektu teknikoak eta gainerako agiriak euskarri digitalean aurkeztu ahaliko dira, formatu hauetan: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak. Artxibo grafiko eta testu-artxiboek pdf formatuan egon beharko dute, eta ez dute karpeterik eduki beharko, baizik eta agiri guztiak maila berean bilduta. Dokumentazioa euskarri digitalean aurkezten delarik, dagokion erantzukizunpeko aitortpena erantsi beharko zaio, udalaren webguneetik deskarga daitekeen inprimakia baliatuz. Eskabideak behar bezala izenpetuta edo ontzat emanda egon beharko du. Euskarri digitala ez zaio itzuliko pertsona edo entitate eskatzaileari.

Dokumentazioa paperean aurkeztea. Paperean aurkezten den dokumentazioak DIN A4 edo DIN A3 tamaina eduki beharko du, eta, herritarrei laguntzeko bulegoko digitalizatzeko errazte aldera, orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe. Eskabideari paperezkoa ez den euskarriaren batean dagoen dokumentazioa erantsi behar bazaio, eta, beraz, digitalizatzerik ez badago, karpeta batean aurkeztu beharko da, edukiaren aurkibidearekin, eta kanpoaldean etiketa jarrita, non zehazten den zein udal zerbitzuri dagokion deialdiko dirulaguntzen lerroa.

Egoitza elektronikoaren bidez: Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahaliko dira, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org> helbidean ezarritakoari jarraituz.

14. oinarria. Akatsak zuzentzea

Eskabidea ez badago behar bezala formalizatuta edo daturen bat falta badu, edo eskatutako agiriaren bat aurkezten ez bada, akatsa konpontzeko eskatuko zaio pertsona edo entitate eskatzaileari, eta orobat ohartaraziko hala egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela besterik gabe.

Organo instrukzio-egileari dagokio deialdian galdatzen diren betebeharrak betetzen direla eta aurreko puntuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu dela egiaztatzea, eta, hortaz, akatsak zuzentzeko eskatu ahal izango du, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 23.5 artikulua ildotik.

Hala eskatu eta 10 egun balioduneko gehieneko epe luzaezinean dokumentazioa aurkezten ez badute edo akatsak zuzentzen ez badituzte, eskabidea bertan behera utzi dutela ulertuko da.

15. oinarria. Prozedura

Konkurrentzia sinplea izango da dirulaguntzak emateko prozedura. Deialdi honen ondorioetarako, honako hau hartuko da konkurrentzia sinpletzat: pertsona edo erakunde onuradunak oinarri hauetan adierazitako betekizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren, laguntzak sarrera-erregistroko hurrenkera kontuan harturik ematea, kreditua agortu arte.

Nolanahi ere, dirulaguntzak emateko ebazpena baldintzatuta egongo da, kreditu egokia eta nahikoa dagoen ere.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Aztertze-, balioztatze-, hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratuko da horretarako, saileko zuzendariak, Merkataritza eta Enpresa zerbitzuetako buruek eta Prestakuntza eta Enplegu Ataleko buruek osatua.

Eskabideak jaso eta betebeharrak betetzen diren egiaztatu ondoren tramitatzea onartzen delarik, txosten teknikoa egingo da, eta, hautatze- eta jarraipen-batzordeak proposamena egiten diolarik, Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko ditu eskabideak, horretarako eskumena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektronikoko bat gaituta eduki beharko dute eskatzaileek tramitazioak iraun bitartean, operatibo, hartara aurkezten duten dokumentazioan aurkitzen diren akatsak zuzendu ahal izateko, edo eskatzen diren laguntzak arin eta eraginkortasunez, modu legalean, ebatzi ahal izateko beharrezko den beste edozein errekerimendu helarazi ahal izateko.

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena jakinarazteko komunikabideak ALHAO eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunea izango dira.

Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko erabakiak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, erabakia hartu duen organoari zuzenduta, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik.

16. oinarria. Dirulaguntzen berri ematea

Oro har, ematen nahiz ukatzen diren dirulaguntzen zerrenda ALHAOn eta udalaren webgunean argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazten direlarik, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoa ere.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.artikuluaren xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; guztia ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.artikuluaren xedatutakoa gorabehera.

17. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen du 64 artikuluan xedatutakoaren ildotik, emakidea ebazpena eman ondoren, onuradunak horren edukia alda dadila eskatu ahal izango du, oinarri arautzaileetan horretarako aurreikusitako zirkunstantziarik egokitzuz gero legearen 17.3.l artikuluan ezarritakoaren ildotik, eta baimendu egin ahalko da, beti ere hirugarrenen kaltean ez bada.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen dituen funtsezko edozein aldaketak ebazpena aldatzea eragin dezake, betiere hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen du 64. artikuluan xedatutakoaren arabera.

18. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko suertatzen diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahal izango ditu, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote enpresa onuradunek.

19. oinarria. Laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona edo entitate onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu. Nolanahi ere, ezingo da dirulaguntza ordaindu, harik eta pertsona edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzuli behar delako ebazpen baten ondorioz zordun bada ere.

Dirulaguntza eman zuen organoak izango du eskumena hura itzularazteko dosierra abiarazi eta, behar izanez gero, hala galdatzeko erabakia hartzeko.

Ofizios nahiz organo eskudunak edo interesdunak eskatuta abiarazi ahalko da prozedura.

Horretarako probidentzia ematen delarik, dirua itzularazteko prozedura abiarazi dela jakinaraziko dio udalak dirulaguntzaren onuradun den pertsonari edo enpresari, baita arrazoiak zein izan diren ere, eta entzunaldia eskainiko, egokitzen dituen alegazioak egin eta bidezkotzat jotzen dituen agiri edo justifikazioak aurkez dituzan, 15 eguneko epean.

Alegazioak jasotzen direlarik nahiz halakorik jaso gabe igarotzen delarik epea, ebazpen arrazoitua emango du Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak, eta aurkez daitezkeen errekurtsoen berri adieraziko. Laguntza itzularazteko prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da.

Ebazpenean urraketaren bat izan dela adierazten bada, galdutzat joko da laguntza jasotzeko eskubidea, eta, horrenbestez, oker jasotako dirua Udal Diruzaintzari itzultzeko obligazioa izango da; bi hilabeteko epean egin beharko da hori, jakinarazpena jasotzen denetik.

Borondatezko aldiko epetzat joko da epe hori.

Aurreikusitako epean itzultzen ez bada, premiamendu prozedurari ekingo zaio, aplikagarri diren lege-araudiei jarraiki.

Itzularazteko prozedura administrazio arau-hauste baten ondorioz abiarazia bada, organo eskudunari jakinaraziko zaio, aplikagarri den prozedura zigortzaileari ekin diezaion.

20. oinarria. Indarrean jartzea

Deialdi honetan ezarritako prozedura Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko urriaren 1ean onetsitako oinarri orokorretan ezarritakoaren mende dago (2021ko urriaren 29ko ALHAO, 124. zk.), beti ere Dirulaguntzen Lege Orokorrean, haren erregelamenduan, dirulaguntzei buruzko udal ordenantzian (2005eko ekainaren 17an onetsia; 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO, 5. zk.) eta deialdiaren oinarri orokorretan ezarritakoaren kontrakoa ez bada.

21. oinarria. Konfidentzialtasun-klausula

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu, Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko azaroaren 18an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio zerbitzuko burua
IGNACIO CEPEDA CRESPO*

I. eranskina

Dirulaguntza honekin lotuta egindako kontratazioaren ezaugarriak.

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/87/90/68790.pdf>.

II. eranskina

Laguntza-eskabidea eta zinpeko aitortpena.

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/05/85/90585.pdf>.